

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko 2020ko zerga borondatezko epean ordaintzea

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar dutenei jakinarazten zaie, 2020ko urriaren 29tik abenduaren 29ra bitartean, egun biak barne eta egun baldiodunetan, ordaindu ahal izango dituztela 2020ko ekitaldiko ordainagiriak, borondatezko epean.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek Udalaren Diruzaintzan (udal bulegoak, Herriko Enparantza, 1. Araia) ordaindu ahal izango dute borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Laboral Kutxa eta Caixan dituen kontuetakoren batean.

Premiamendu aldia 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da, administrazio premiamentuko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion errekargua aplikatuta (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua, Arabako zergen orokorra, 28. artikulua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2020ko urriaren 8a

*Alkatea*

**CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ**